

## Lagina bidaltzeko jarraibideak

Edozein lagina bidalketa hurrengo jarraibideak bete behar ditu. Edozein galdera erantzuteko Oll Biodonostiaren Diagnostiko Molekularraren Plataformaren arduradunarengana jo dezakezue:

Pilar Camaño González

Telefonoa: +34 943006127

Emaila: [pilar.camano@osakidetza.eus](mailto:pilar.camano@osakidetza.eus)

Laginak bidaltzeko formatua (ADN kontzentrazioak, beharrezkoak diren gutxieneko kantitateak eta bolumenak eta abar) aldatu egiten da azterketa molekularraren arabera eta erabiltzen den teknikaren baldintza espezifikoaren mende dago. Plataformaren arduradunarengana jo dezakezue azterketa bakoitzeko baldintza zehatzak ezagutzeko.

Banakako azterketak egiteko, bi aukera daude: **odol periferikoa EDTAn** (tapoi lila) bidal daiteke, edo **jada ateratako ADN**a bidal daiteke.

Lagina bidaltzeko jarraibide teknikoak:

- Azterketak sekuentziazio-panelen bidez egiteko 100 ng ADN behar dira gutxienez eta kalitateak DNA:  $260/280 \geq 1,8260/230 \geq 2$  ratioa izan behar du.
- **ADNa lortzea EDTAn (tapoi lila)** jasotako odol periferikoko 10-16 ml-tik aurrera. Lagina giro-tenperaturan bidali behar da eta lagina atera eta ondorengo **24 orduan** iritsi behar du. Lagina atera den egunean bertan bidali ezin bada, odola 4°C-tara izoztuta gordeko da bidalketa egin arte eta **giro-tenperaturan** bidaliko da. Bidalketan atzeratuz gero edo lagina tenperatura desegokian kontserbatuz gero, prozesatzeko denbora luzatzeko eta lagina kaltetzeko arriskua dago.
- **Ateratako ADN**a bidali behar bada, galdetu lehenago, eskatutako azterketa molekularraren arabera kantitate handiagoa edo txikiagoa behar izango baita. **Atzeritarretatik** bidalitako laginen kasuan, hobetoagoa da ateratako ADN bidaltzea. Jasotako ADNak ez baditu betetzen kalitatearen eta integritatearen gutxieneko betekizunak, bidaltzaileari jakinaraziko zaio.
- **ARNa lortzea EDTAn** (tapoi lila) jasotako odol periferikoko 4-8 ml-tik aurrera. Lagina **24 orduko epean** bidaliko da eta laginak izoztuta egon behar du —izotz-zatiak dituen kaxa baten barruan, 4°C-ra—, baina laginak izotz-zatiak ez ukitzea komeni da, lagina ez izozteko. Horretarako, nahikoa da laginak zapi batean biltzea.

## OHARRAK:

**Distrofia Fazioeskapulohumeralaren (FSHD)** azterketa molekularra egin nahi bada, EDTAn odol periferikoaren 10-20 ml bidaltzea komeni da, **gutxienez** 30 mikrogramo ADN behar baitira eta, ahal bada, 400-500 ng/µl arteko kontzentrazioa eduki behar baitu. Oso garrantzitsua da baldintza hauek betetzea ateratako ADNa bidaltzen bada azterketa molekular honetarako.

**Jaio aurreko azterketei** dagokienez (likido amniotikoa edo bilo koriala), hitzordua hartu **gutxienez** 15-30 egun lehenago. Egin nahi den azterketa molekularren arabera adieraziko dira laginek bete beharreko baldintzak.

Modu osagarrian, honako hau gogoratzea komeni da:

- Tutu guztiak behar den bezala etiketatuko dira eta kasuan-kasuan eskaera-agiriarekin batera aurkeztuko dira (eskaera-agiria ondo beteko da).
- Pazienteak (edo bere lege-ordezkariek) baimen informatuaren orria sinatu behar du proba genetiko hau egiteko. Orri horrekin batera azterketaren eskaera aurkeztuko da.

Edozein galdera erantzuteko eta jatorri genetikoko patologien azterketa molekularrak edo diagnostikoak eskatzeko, OII Biodonostiaren Diagnostiko Molekularren Plataformaren arduradunarengana jo dezakezue:

Pilar Camaño González

Telefonoa: +34 943 006127

Emaila: [pilar.camano@osakidetza.eus](mailto:pilar.camano@osakidetza.eus)

Diagnostiko Molekularren Plataformak ezarritako baldintzak betetzen ez dituen edozein eskaera edo lagin atzera botatzeko eskubidea erreserbatuta du eta konpromisoa hartzen du laginaren identifikazio, manipulazio edo tratamenduari dagokienez izan daitezkeen gorabeherak, edo eskaera-orriei dagokienez izan daitezkeenak (galtzea, ezbehar bat gertatzea eta abar) eskatzaileari jakinarazteko.